

JON GEREDIAGA

Poesia, bizitzaren gorazarre eta minentzako ukendu

Jon Gerediagak *Natura berriak* (Pamiela) poemategia argitaratu berri du, bere seigarren poesia liburu, Xabier Lete saria irabazi ostean. Poetarekin mintzatu gara liburuaz, naturaz eta bere barne paisaiez, bulkada poetikoaz, idaztearen sendagarriaz, bizitzari eskerrak emateko beharraz, adierazi ezina hitzez adierazi nahiaz. Idazleak bizitzan eta poesian bidaide duen adiskideak, Iñigo Martínez Peñak, lagundu digu Gerediagaren lana eta begirada ezagutzen.



Estreinako *8 Olivetti poetiko* (2001) antzerki lanaz geroztik poesia eta antzerki lan ugari argitaratu du Jon Gerediagak, baina *Natura berriak*-ek ilusio berezia egin dio, “sinbolikoki indarra du”, Xabier Lete Euskarazko Nazioarteko V. Poesia Saria irabaztearen ondorio delako. “Berandu eta gutxi” ezagututa ere miresten duen poeta da Xabier Lete, ereserki diren *Izarren hautsa* edo *Xalbadarren heriotzean* bezalakoengatik ere bai, baina bereziki haren *Biziaren ikurrak* poemategia irakurri zuenetik: “Hasi eta buka irakurri nuen, txundituta geratu nintzen, ‘hau poeta handia da’, pentsatuz”.

Poz “prosaikoagorik” ere eman dio sariak, “teillatuak obra behar du eta horrekin ordainduko dugu, eta horren truke elkarriketaren bat egin behar badut, ez da meatzean aritzea ere”. Elkarriketak egitea ez baitu gogoko Gerediagak, nahiz eta garai batean “traumatiko” zitzaiola, egitearen egitez, “gero eta hobeto” eraman. Amu berezia jarri genion elkarriketa proposamen honi kosk egin ziezaion, eta berak heldu: ondoan dugu

Iñigo Martínez Peña, Gerediagaren lagun mina eta bere lan poetikoa sakon ezagutzen duena, erdi elkarriketatu erdi elkarriketatzaila lanetan.

POEMAK POLTSIKOAN

Hamazazpi urte dira elkar ezagutu zutela, artean gazte. Martínez Lauro ikastolako filosofia irakaslea zen ordurako eta ikasturte amaieran Gerediagak hots egin zion, irailean bera ere filosofia klaseak ematen hasiko zela bertan. Abuztuaren 6an elkartu ziren Gasteizen, jaiak hasi berri, elkar ezagutu eta materialak partekatzeko, biak herabe eta lotsaz parean zer *irakasle* aurkituko, alkandora formalekin moztortuta. Baina gutxi iraun zuten formalidadeek, eta bazkalurreko zita ustez laburra gaupasa gogoangarrian amaitu zen. “Gezikada izan zen, laster hasi ginen hitz egiten bizitzaren zentzuaz, filosofiaz, poesiaz, edozein gauzaz, partekatzen paseoak, ardoak, bizitza bera”, oroitu du Martínezek.

Gerediagaren poemak aspaldi hasi ziren partekatzen, “askotan eraman dut Jonen poema bat poltsikoan”.

Behin zirriborratuta poema bat hiru-lau astez poltsikoan gordea eraman ohi du Gerediagak, “borobildu arte”, eta tarte horretan irakurle baten beharra du askotan: “Konfiantzazko norbaiti eman, ez trukean komentario bat jasotzeko, baizik eta jakiteko bitartean norbaitek irakurriko duela eta ez dela ahaztuta geratuko. Iñigo horretan beti izan da oso mintzakide ona, beti jakin dut gustura irakurtzen zituela eta hori poz handia da. Kalitate handiko irakurlea da”.

NATURA, BETI NATURA

“Basoaren atarian / astiro bigunduz doa / giza bihotz baten / oskol zurruna euritan. / Euritan beratuko dira / azalak eta ertzak. / Natura hezeak dio / lokatz hau, / lokatz honetan...”. Poesian murgiltzeko aldarte egokiaren bila, erritmoa geldotzera eta bihotza biguntzera gonbidatzen du irakurlea lehenbiziko poemak. ‘Natura berriak’ izenburuan ez ezik, hurrengo poemetan errepikatuta aurkitzen dugun adiera da. “Gutziz arrotza zait unibertsoan beste bizitzarik ez dagoenaren ideia. Ez dakit nola



okurritzen zaion gizateriari hori pentsatzea, nik uste egon behar dutela natura berri piloa. Eta horrek nolabaiteko kontsolamendua ematen dit. Garaiotan, non ematen baitu lur gaineko bizitzak iraungitze data izan dezakeela, esaten duzu: bizitza erabat desagertzea ezinezkoa da". Naturari asko abestu zaio la dio Martínezek, "eta abestuko zaio, gai zaharra eta berria da, lotzen ditu iragana eta etortzeko dagoena". Arrazoa eman dio, pentsakor, Gerediagak: "Askotan idazten dut iraun beharko lukeenaren alde, hor batzen da beti egon dena eta egotea nahiko nukeena hurrengo mende eta milurtekoetan ere, natura".

Fitola Balba, Karpuki Tui-tik (2004)
Natura berriak-era doazen sei poesia liburuetan, naturari abestea konstante bat da. Bere poemetan gizakia apenas dagoela presente errepikatu izan diote Gerediagari, baina berak ezinezkotzat du hori: "Poemetan dagoena ez da zuhaitz bat, giza hitzak dira, sinboloak. Sinbolo horietan batzen da kanpoko mundua eta idatzi duenaren barne mundua. Errealitatea deskribatu nahiko banu, botanika tratatu bat egingo nuke. Paisaia horiek naturarenak baino gehiago barne paisaiak dira. Izpiritu bat deskribatzen dute, ez zuhaitz baten anatomia".

Goiza eta eguerdia; arratsaldea; gaua; gauaren ostekoa. Egunaren zikloa jarraituz antolatuta dago *Natura berriak*, eta poemetan urtarook, zikloak eta horien errepikapena oso presente daude. Denbora ziklikoa dela sinetsita dago Gerediaga –"linealtasuna gizadiaren asmakizuna da"–, eta betiereko errepikatzearen ideiak kontsolamendua ematen dio. Martínezi liburuak hori transmititu dio: "Nahiz eta denborak aurrera egin bada, go etengabe bueltatzen den zerbait, eta errepikatze horrek lasaitasuna ematen du bizitzaren aurrean".

Oinarrian lokatza, purutasunaren metafora. Ez ona soilik barnebiltzen duen purutasun kristaua, antropologiako tesia prestatzen ari zelarik maputxeen artean ikasi zuena baizik: "Gauza bakoitzak bere tokia du munduan, eta denak dira beharrezkoak, purutasuna da osagai horiek elkarrekin eta oreka batean bizitzea". Hasiera eta amaiera, bizitzaren gaitza eta ona materia egina: "Ur uher lokaztuak, / zuen ametsean sortzen da / natura berrientzat elikagaia. / Ore lodi horrek geldiro / ongarriruko ditu lur ezezagunak [...]".

"Errealitatea
 deskribatu nahiko
 banu, botanika
 tratatu bat egingo
 nuke. Paisaia horiek
 naturarenak baino
 gehiago barne
 paisaiak dira"

Poemetan giza-mundua minarekin eta ezinegonarekin lotzen ote duen, ez ote duen etengabe berrituko diren natura berrietan aurkitzen hori bizigarri egiteko arnasa. Ez dago ados, ez du sentitzen natura eta gizadiaren arteko dikotomiarik. "*La2*-eko dokumentalak nik ezin ditut ikusi, ateratzen da Thomson gazela bat eta badakizu zer gertatuko den. Natura hori ere bada, eta gizadia ez da bakarrik ankerkeria: egunero gauza zoragarriak gertatzen dira pertsonen artean, ni maitasunez inguratuta bizi naiz eta uste dut hori ere poema askotan dagoela". Egia da, ordea, natura sendatzaile zaiola, "naturan aurkitzen dut ukendu bat egonezinak baretzeko, babesleku bat", baina ezinegon hori intimoa da nagusiki: "Nik gatazka gehienak

Gerediagaren
 moduko poesia
 sentitzeko
 saiakera egin nahi
 duenak hobe luke
 aurretik presak eta
 gainestimulazioa
 bridatu –ariketa
 batere erraza ez–

ez ditut gizadiarekin, ditut nire buruarekin, batzuetan gorabehera oso zorrotzak izaten ditut". Poema bat idazteko bulkada sentitzean ohartu ohi da beherakada batetik datorrela, hortik irteten hastean datorkio beharra, "seguruenik mina eta ukenduaren arteko harreman hori poemetan agertuko da".

Ezinegon barne paisaia, errepikapena kontsolamendu, natura helduleku, bizitza poz iturri: "Zain nago, bide-bazterrean, / bihurtune berean, iazko / lore urdinak noiz agertuko. / Alegria nadin, esan dezadan: / mundu hau ez zait arrotz, / lore urdin hauek / aspalditik ditut ezagun".

BIZITZAREKIKO ZORRA KITATU

Beherakada osteko goraldian, "arindu hori ospatzeko" beharretik idazten du Gerediagak. "Sufritzaile bat naiz gauza askotan, baina oro har balantza jarri eta existentziarekin zor bat dudala sentitzen dut, bizirik egotearen sentsazioarekin zorra, oso gutxitan sentitzen dudana, esker oneko zorra. Horrek eramaten nau poemak idaztera". Oso gutxitan sentitzen den hori, norbera baino askoz handiagoa, mugagaitza, esangaitza den horren parte izan eta armonian egotearena: sentimendu ozeanikoa deitu zion Freud, iraupen sentimendua Peter Handkek. "Sentimendu hori hitzez harrapatu nahi eta ezin hori" du Gerediagak idazteko beste motiboetako bat.

Poesiaz dosi txikietan elikatzen da: poema baten zirriborroa asteen edo bi asteen behin idazten du, poesia irakurri ere oso noizbehinka egiten du. Idazteko aldarte jakin bat behar du –bihotz bigundua–, testuinguru bat –"koadernoa eta behintzat landare bat ondoan izan"–, geldotasun bat –"saiatuko naiz nire burua ulertzen, poema batean sartzen bestela handiegia den errealitate hau eta nire barrua, eta horretarako geldotu behar naiz, ingurura begiratu, nire barnera"–. Antzekoa behar du Martínezek poesia irakurtzeko: poltsikoan egun osoan eramanez ere, gauean irakurri izan ditu Gerediagaren poemak, "gauaren tempoa poetikoagoa egiten zait". Eta bai, Gerediagaren moduko poesia sentitzeko saiakera egin nahi duenak hobe luke aurretik presak eta gainestimulazioa bridatu –ariketa batere erraza ez–.

LABURRAGO, GARDENAGO

Gaiak konstanteak badira Gerediagaren obran, formak aldaketa handiagoa izan du. Poesia idazteko bulkada nerabeza-



rotik du, lehen urteetako poemak bilaketa bezala ulertzen ditu, “ahots batena, mundua begiratzeko nondik batena, formatua, hiztegia, non pausatu begirada eta zer ahaztu”. Sentitzen du duela hiru liburu aurkitu zuela bere ahotsa *–Argia, lurra, zuhaitza, zerua (2015)–*, poema laburrak, estilatuak, “hamar lerrotan ez badut lortu sentitzen dudana adieraztea zer edo zer txarto dago”. Urteekin, Gerediagaren poemak gero eta lasaigarriagoak zaizkio Martínezi: “Oso gardena egiten zait, gero eta gehiago. Bada joera bat gero eta poesia baketsuagoak idazteko, hitzak helduleku bihurtzekoa”. Horrela nahiko luke Gerediagak, “polita da diozuna”, diotso lagunari. Borobiltasunaren bila poemak gardendu, laburtu... Haikuetara heltzea ote erronka? “Ez, haikuak ondo daude, irakurtzen ditut oso gustura, baina hor beste sentibilitate bat dago, eta gurea mendealderria da. Horrek ez du esan nahi Ekialdekoa izan behar denik naturaz idazteko”.

Bere poemak irakurrita balirudike Gerediaga naturan murgildua bizi den

ermitaua dela. Baina hizkeran bezala bizitzan, iradokitze poetiko existentziala tabernako umore lurtarrarekin eta hiriko bizitzarekin nahasten ditu. “Bilbotarra naiz, urbanita militantea, tabernak eta lagunekin egotea gustuko dut”. Hor ere egon da bilakaerarik, ordea, eta bere lanean eragina izan duela dio: “Orain lasaigo nago egurrezko etxolan. Hamar urte dela Artxandan bizi naiz, toki estrategiko batean tabernetatik bost minutura, baina gauez kilkerak entzuten ditut, ez tabernarik, ez autorik. Eta uste dut harremana duela orain zortzi urte nire ahotsa aurkitu izanarekin”.

Poema borobila irrikatzen du Gerediagak, “behin eta berriz itzuli zaitezkeen poema bat, beti lasaitzen zaituena eta zer edo zer esaten dizuna. Ahopeka edo ozen irakurrita beti borobila iruditzen zaizuna. Hau da, ezinezko bat”. Ezinezkoa, dio Martínezek, poesiaren izateagatik beragatik: “Zer esaten du poemak? Bada, poemak esaten duena –‘bai-bai’, Gerediagak–. Hizkuntza poetikoak hori du bere alde, ebokadorea izatea, esatearen mugan

egotea, esanezina esan nahia; poemek hizkuntzaren mugetatik eta diskurtsotik kanpoko zapore bat uzten dute”. Borobiltasun zorionez ezinezkoa, irrikatu arren ez baitu lortu nahi: “Seguruenik izango litzateke hiltzea, sentitzea ‘amaitu dut egin behar nuena, ez daukat bultzatuko nauen ezer’; espero dut hori oso zahar eta nekata nagoenean heltzea, edo ez lortzea eta idazten jarraitzea”.

Naturaz eta barne paisaiez mintzo den poesia, hizkuntza txiki gutxitu batean, irakurleari geldotasuna eta bihotz bigundua eskatuz... Ahanzturara kondanatutako ahotsa lirudike Gerediagarenak garaiotan, baina bazterrekoa izanagatik ere, badu bere txokotxoa irakurleen artean eta, “zabaltzeko aukerari” uko egiten ez dion arren, “ondo hartua eta gustura” sentitzen da bertan. Garaien gaintetik, poesiara bultzatzen duen bulkada beste askorena ere badela uste du. Horregatik jarraituko du poetak idazten, eta horregatik egongo da beti poema poltsikoan kukutuko duen irakurlerik, irakurtzeko une aproposaren zain. ●